

ERDI-AROKO EUSKAL ERRI IZENEN IDAZKERA

Zuzenketa

Beste edozer baiño lenago, zuzenketa bat egin-bearrean aurkitzen naiz aurrena. «Karmel» onen aurreko zenbakian, Leon'go printzesa baten esakizun gordin bat aurkeztu nuan. Claudio Sanchez Albornoz'ek bere «España. Un Enigma Histórico» deritzan liburuan dakarrena (Buenos Aires, I; 227 orr.). Ez neukan liburu ori eskuetan nere idazlana gertutu nuanean-da, buruz egin nuan aipamena. Gelditu zitzaidan kezkatxo bat: nik nion bezala «Eun Neskaitillen Zergaren» garaiekoa ez baiña, gertakizun ura geroagokoa ez ote zalaren kezka. Eta ala da izan ere: geroagokoa da. «Eun Neskaitillen Zerga» VIII mendearen azkenari eta IX mendearen asierari dagokio. Nere Printzesa aren esakizuna berriz geroxeagokoa da; X mendearen asierakoa; II Ordoño Erregearen aizpa zan Printzes ura, eta Kordoba'ra Almanzor garaillearen «haren» edo emategira katigu zeramatela jaurri zuan bere pitxikeri, ospetsua; «Los pueblos deben poner su confianza en las lanzas de sus soldados más que en el co. de sus mujeres» esan omen zuan, Sanchez Albornoz'en izkeran. II Ordoño, 914'tik 924'era izan zan Errege.

Sanchez Albornoz'ek ez diosku nondik artua duan, damai-kigun esaera. Nik beste era batera neukan entzuna, eta nunbait irakurria; eta alaxe eman ere eman nuan: entzunik eta irakurrik neukan modura.

Bizkai'ko Jaunaren Larruki bat

Onela agertzen zaigu idazti ori Larrauri'ren liburu aipatuan (Suplemento, 243 or.): «Sentencia arvitriaria (arbitral, esango genduke gaur) perteneciente al Monasterio de Barria, en cuyo Archivo existe, dada por D. Lope Díaz de Haro, Señor de Vizcaya, y confirmada por su hijo D. Diego Lopez de Haro».

XIII mendekoa da.

-BARRIA, Barrundi'ko Aranean dagoan lekaima ziztertaren Lekaimetxe izen aundiko bat dugu. Barrundi esaten zate bertako ibaiari ere, naiz an bizi diranek, ibai orri, «rio Mayor» esan. Beste ango ibaietatik bereitarren? Ez da an ibairik, ur gitxiko errekatxo txiki batzuk izan ezik. Ez ote da MAIOR ori bere itxura galdu duan euskal-izen bat?

Bizkai'ko Jaunak aipatu zuan auziaren mamia, MAIOR ortako zati bateko uren jabetasuna da. Barria'ko lekaimak eta Narbaxa'ko jendeek egin nai bait ziran ur aien jabe.

Euskal-izenen arazoan, garrantzi aundikoa dugu larruki au, izen bat bera «H»z eta «H»rik gabe idatzia ematen digulako eta beste izen bat, euskal izena, gaztelerara itzulia agertzen digulako. Ona idatzi ortako erri-izenak:

HARO	ARRIAGA	VETOLAZA
VIZCAYA	ALAVA	AXPURU
BARRIA	MENDOZA	LA PEDRERA
NARBAXA	SALCEDO	ZUAZOLA
GACEO	CALAHORRA	LIGARIA
	HEREDIA	HORDOÑANA

Ez ditugu itz oiek danak banan-banan aztertuko, len aztertirik bait daukagu, batzuek beintzat. Ala:

-VIZCAYA ikusi izan dugu «B»kin, «V»kin, «C»kin «K»kin «H»kin eta «H»rik gabe idatzia. BISCAGIA idatzi zuan Rada Goigotzai edestilariak.

-ARRIAGA ere ikusi izan dugu dokumentu bat berean «H»kin eta «H»rik gabe. 1087'ko idatzi batek damaigun

HORRIAHA ere HARRIAGA da seguruaski, «H»aren ondo-ko «O» ori «A» bat bait da, lumalariaren axolagabekeriz «O» biurtua. Bigarren «H»a berriz «G» irakurri bear da, maiz erabiltzen bait zuten «H» «G»ren otsa adierazteko.

Egia da ORRIAGA abizena badala Euskalerrian; jatorriz Lujua'ko Emerando deritzan auzokoa. 1743'ko dokumentu batean dakusgu. Baiña Orriaga ori ELORRIAGA da, dokumentu ortan bertan agertzen dan bezala. (Ikus Kerexetaren «Dic. Onom.»)

-ALAVA, batzuetan «B»kin besteetan «V»kin agertu zaigu. Oraintxe aipatu dugun Errui Rada Toledo'ko Goigotzai edestilari euskaldunak, MALAVA deitu zion XIII mendean: «Et a Malava, Ordunia, Viscagia, Navarra et Ruconia... usque ad Pirineum». MALAVA'ren «M» ori lapsus calami, «lumaren utsa» oste da? Seguraski.

-HORDOÑANA. Agurain'en inguruan dagoan errixka bat duzu. 1332'ko larruki batean HERDOÑANA esaten dio XI Albontsa gaztelarrak. Askoz leenago, 1025'ean, ERDONGANA deitu zion berriz Kukulla'ko burni-barren larrukiak.

«GN», «Ñ»ren otsa adierazteko antziñako lumalari aiek erabilli zituzten izki-jokuetakoko bat dugu. Besteak, «NN», «NI», «NNI», «IN», «Ñ» bera, eta «NH» ziran.

Askotan, «GN» bikoteko «N», «G»ren aurretik ipintzen zuten. Ortaz, Kukulla'ko Donemillian'en larrukiko ERDONGANA, ERDOGNANA, dugu: ERDOÑANA. Bai ote? Araba'n bizkaiera itzegiten zalarik, ERDONGANA ori ERDONGANA izan bait daiteke: Gipuzkerazko ERDON-GAÑA.

GANa atzikia, Araba'ko toki-izen edo toponimo askotan aurkituko duzu. ERDOIN zer izan daitekean jakitea da, geixago kostako zaizuna.

Idazkerari dagokionez berriz, ia beti «H»rik gabe aurkituko duzu idatzirik ORDONANA.

-HEREDIA. Au ere, Agurain'en inguruan dagoan erri-

koxkorra. Judutarrak dirala Eredi'ko jendeak, esan oi da Araba'n. Judutar «xefardien» arten Ben Hered izeneko leiñu edo «tribu» bat bazalako?

Gaur ere «H»z idatzi oi da gazteleraz erri onen izena. Zergaitik? Ez dizu iñor esango. Ez beintzat «H» ori iñioiz agoskatua edo «pronuntziatua» izan dalako. Erdiaroko idazleek «H», askotan «G» adierazteko erabiltzen zuten. Ortaz, gaurko EREDIA jatorriz GEREDIA ote da? GAREDI, agian?, AREDIA bat ere agertzen bait zaigu 1051'n; Baiña AREDIA ura «H»rik gabe dakusgu idatzia: «Domino Munnio Présbiter de Aredia».

AREdia'ren antzekoa dirudi AREGIA'k. Jatorri zaar onuragarritzko izena, Sebilla'ko Isidor Deunak, bere Gotetarren Edestian aipatzen duana: «Cantabros namque iste (Leobigildo'k) obtinuit, Aregiam iste cepit».

Kantabri, bisigotek, Euskalerrriaren Egoari esaten zioten, Errioxa'ri. An zegoan Ibero ibaiaren iparraldean, gaurko Logroño'ren aurrean, muño baten gainean CANTABRIA esaten zioten uria. An dago Kantauri'ko Malloa ere (Sierra de Cantabria) Araba'ko Errioxa iparretik itxiaz. Lurralde artan ezarri zuten bisigotek, euskotarren aurka guda-egiteko, «Comitatus Cantabriae», edo Kantabri'ko Kondadua. Baiña Araba'ren egoaldean (edo gaur-egungo Santander Probintzian) Leobigildo'k menderatu zuan AREGIA ura non zegoan jakiterik ez dago. Aburu ezberdiñak, bai; aurkituko dituzu ugari. Baiñan bat ere ez ziurra danik.

HEREDIA bera ez da beti «H»kin idatzi. Ala, 1258'ko larrukian: EREDIA.

-HARO: Izen ospetsua, Bizka'i'ko Jaunen abizen izan zalako. Izen ori, FFARO eta FARO ikusiko duzu batzuetan. Orrela 1291'ko dokumentu batean: «D. Johan Alfonso de ffarò» eta «D. Joan Alfonso de faro». Orra or jaun baten izena, dokumentu berean, batean «H»kin eta bestean «H»rik gabe idatzia. Sarritan aurkituko duzu JON izena dokumentu bat berean modu ezberdiñez idatzia: JOAN, JOHAN, JOKAN, eta JUAN.

HARO, ere ikusiko duzu batzuetan «H»rik gabe. Orain aztertzen ari geran larruki ontan lau aldiz «H»kin dakusgu (HARO), eta bein, «H»rik gabe: ARO. Eskribaua oartu ez zalako? Ez dirudi. Jaun ori beraren izena «H»rik gabe agertzen bait zaigu bost urte lenago, (1286'ean): «Joan Alfon de ARO».

Bazebillen txukun, bai orixe!, euskaltzaindi agurgarriko zuzendari txit agurgarria, euskaldunoi «H»a irentsiarazteko, erdiaroko idazkera arrazoi-ipintzen zigunean! Eta, beste arrazoirik ez dute atxezaleek!!! Ipartarren oitura aipatzeak, arrazoitzat ez eze, aitzakitzat ere ez bait du balio. An ere Iparraldean ez dute askok «H»rik agoskatzen. «H» agoskatzen dutenak ez dira euskaldunon artean %5, eunetik bost, izango. Geiago dira, «I» eta «A»ren artean «Y» bat («Donostiya», «ogiya», «anaiya») edo «X» bat sartzen dutenak («Donostixa», «ogixa», «anaixa»). Eta bearbada, baita, Bizkai-aldean «j» bat sartzen dutenak ere. Alata guztiz ez zaie auei, berez izki ori, besteei indarrez artuatzerik gogoratu!

-ZUZAOLA. Barrundi-Araneko erritxo bat zan. Etxe bat bakarrik gelditzen zitzaion zutik; ain zuzen il ontan bertan erre dan etxea. Zugaitzez inguraturik, toki zoragarrian dago.

Burnibarren Larrukian ere badatorkigu erri orren izena, baiña bi «H»kin idatzia: ZUHAZOLHA (gotik-larrukiak), ZUHAZULHA (galik-larrukiak). Aurreneko «H»a «G» dala, aitzintxe adierazi dugu. Bigarrena, emen, «LL» da: ZUGAZOLLA, nik uste dudanez beintzat.

ZUAZO, larruki batzuetan «H»kin beste batzuetan «H»rik gabe ikusiko duzu, aizeak nola ematen zien, ala idazten bait zuten eskribau zar aiek.

Burni-barren larrukiak, iru ZUHAZU aipatzen ditu, bat Barrundi'n, bestea Ganboa'n eta irugarrena Gazteiz'ko Ordoki edo zelaidian. Irurak «H»z. Baiña XI mende artan bertan, «ZUAZO» (1051), ZUAZO (1106), ZUAZU (1138, eta 1332); «H»rik gabe. Altagutziz, ZUHAZU, 759'an. Geyenetan ordea, ZUAZU, edo ZUAZO, irakurriko duzu: «H»rik gabe.

-LA PEDRERA. Zalantzarik gabe La pedrera ori,

ARRIOLA da, Barria izeneko Lekaimetxaren alboan dagoan erria. Askotan pentsa izan dut, Euzkadi zanaren egoaldeko erdel-izen asko erderara itzultitako euskal-izenak dirala; Gaurko La Pedrera au Arriola gazteleratua dan bezala.

(Luze goaz ordea-ta, datorren zenbakian argituko dugu «La Pedrera»z emen aurre-eskaiñi duguna).

Bixente Latiegi

BANCO DE BILBAO

100 urte baiño geiago bezeruen zerbitzuan

**ESPAIÑA'KO BANKO BAKARRA
ERBESTEAN ETXE-ORDEZKOAKIN**

Ofizina: Karmen kalean, 7 - AMOREBIETA (Bizkaia)